

Olentzero, Olentzaroren Basoan

Eskuarteon duzun ipuin hau, ipuin bat baino zerbait gehiago da:
hainbat eta hainbat hausnarketaren fruitua da;
hamaika elkarrizketaren bidez ondutakoa.

Tolosako Elozegi Parkean garatutako Olentzeroren Basoa proiektuan
oinarritua dago eta Eguberriaren jatorri eta zentzua
berreskuratzea du helburu, aspaldiko Euskal Usadioak,
Natura eta Feminismoa ardatz harturik.

Eguzki amandrea hil eta jaio egiten da sasoi honetan, Neguko
Solstizioa, Natura berpizten hasten da, zaharra atzean uzten
dugu berriari leku egiteko.

Naturak berak eskaintzen dizkigu Olentz-Aro garai hau ospatzeko
mila arrazoi: Eguzkiak, Urak, Suak... Elementu horien presentzia
berreskuratu eta euskal kulturak belaunaldiz belaunaldi
transmititutakoa bizirik mantendu nahi dugu.

Bestalde, Kontsumismoa borborka dagoen
garai honetan, hausnarketari eman
nahi diogu bide: haurrei opariak ekartzen
dizkien Olentzero soil goratu ordez,
Natura bera bihurtu nahi degu opari.
Ama Lurra, Mari, sendabelarrak, egurra...
Basoak berak eskaintzen diguna, alegia.



Gogoeta egin nahi dugu, bestalde, gaur egun folklorea infantilizatzeko dugun joeraz. Badirudi orain Olentzero zarpail eta desatseginak ez duela balio, baina Olentzeroren irudi zarpailak Naturaren ziklo baten heriotza sinbolizatzen du, hala, uraren eta suaren bidez zaharbierritu eta garbituko den Olentzero bat, alegia, hurrengo zikloari ekiteko.

Beraz, Olentzaroren ipuin honen eduki nagusia, Natura eta Basoa da, urtearen aro giltzarri batean kokatua, Olentz-Aroan hain zuzen ere (zaharra hil, berria jaio); horregatik ura, horregatik ogi berria, horregatik jantzi berria, horregatik su berria.

Gainera, gure ustez, haur batek bere baitan duen altxor handienetako bat IRUDIMENA da. Zerbait iradokitzen diogunean, haur bakoitzak -eta heldu bakoitzak ere bai-, bere buruan irudimenak ematen dion adina istorio sortzen ditu.

Zergatik hori mugatu? Olentzero gizonezkoa eta ikazkina pertsonifikazio herrikoi bat da, baina haurrari uzten badiogu bere buruan Olentzeroren irudia imajinatzen, irudimenaren indarrak berak aberastu egingo du irudi hori; horrela, ez diogu genero jakin bat emango, ez diogu itxura definitu bat emango, eta haur bakoitzak osatuko du buruan bere irudi propioa.

Hori da, bide batez, ahozko ipuin tradizionalak antzina-antzinatik eskaini diguten altxor handiena.

Xxxxxxxx... ikusi..., entzun..., usaindu..., sentitu...

Olentzaroren Basoko arrastoak...

Aurten ere, UDABERRI OPARDA iragartzen digu!